

Esp. Zkia.- KE-2021-14

E.E.- 2021-00171

**251/2021 DEKRETU ZENBAKIA:**

Larrabetzuko Udaletxean, 2021eko bagilaren 18an.

OINARRIA: 2021eko bagilaren 28an eta sarrera erregistro nagusiko 1394. zenbakiagaz, Intxurreta Jai Batzordeak Larrabetzuko Udaleko 2021eko Aurrekontu Orokorrean modu nominatiboan zehaztutako diru-laguntzaren eskaria egin zuen. Diru-laguntzaren zenbateako 30.000,00 eurokoa da.

OINARRIA: 2021eko urtarrilaren 31an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2021 ekitaldi ekonomikorako Udal aurrekontuaren behin betiko onarpena argitaratu zen eta horretan Intxurreta Jai Batzordea Elkarteari diru-laguntza nominatiboa agertzen da 338.48002 aurrekontu partidaren. Partida horretan 30.000,00 euroko kreditua dago.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22 eta 28. artikuluetan, Lege hori garatzen duen araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, honako hau EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Intxurreta Jai Batzordea Elkarteari 338.48002 aurrekontu partidaren pentsuan 30.000,00 euroko diru-laguntza ematea, ebazpen honetan zehaztutakoari jarraituz:

- Diru-laguntzaren objektua: Hurrengo udal jaiak antolatzea: Andra Mari (abuztuak 12, 13, 14, 15 eta 16), Bartolome Deuna (abuztuak 24) eta Emeteri Deuna (abuztuak 30 eta 31 eta irailak 1).
- Aurrekontu kreditua: 30.000,00 euro, udal aurrekontuko 338.48002 aurrekontu partidaren pentsuetan.
- Xede berdinarekin lortzen diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota baliabideekin bateragarria izango da, horiek bestelako Administrazio Publikoetatik datozela edo beste erakunde publiko edo pribatutik datozela kontuan izan gabe. Justifikazioarekin batera bestelako diru-sarrerak lortzitu izanaren inguruko akreditazioa egin beharko da.
- Diru-laguntza ebazpen hau ematearekin %70a ordainduko da eta geratzen den %30a justifikazioa egin eta gero ordainduko da.
- Diru-laguntza justifikatzeko epea 2022ko urtarrilaren 15ean bukatu egiten da. Justifikazioa lege aplikagarriak zehaztutako moduan egigo da.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diru-zaintzari eman diru-laguntzaren ordainketa egin dezan.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau interesdunari jakinarazoko jako.

LAUGARRENA.- Udalbatzako Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran Dekretu honen barri emongo da.

Iñigo Gaztelu Bilbao  
Alkatea

Nire aurrean,  
Behin-behineko Idazkaria